

CHARDIÑ SALTZALLIA.¹



Gatzik gabia.

Treñeratik beteta duben saskiya,
 dijua kalietan neska liraña
 gogotikan ojuka ¿nork arrek aña?
 «Chardin' oraingošia, bizi-biziya.»
 Sayets aldian tratu dizdizariya
 t' eskeiñtzian azkarra dauka mingaña,
 —¿Iruban? ez det aitzen, ez alajaña,
 jiru kuartuan! ja, jai! chardiñ aundiya!—
 Oñ' utsik, gona motzak euriya astian,
 buruban pañelua bilduba atzera,
 besuak ageriyen, poztasunian
 dabill presaka beti gora ta bera,
 zerbaiten zai katubak aldamenian,
 saskiya ustu ta berriz korri kayera.

MARZELINO SOROA.



(1) Soneto premiado con una *medalla de plata* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1890.